

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

ZEHARKAKO ZERGEN ZERBITZUA

Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun Finantza eta Aurrekontu, Saileko Foru Diputatua, 317/2025 Foru Agindua, ekainaren 2koa. Onespena ematea 573 ereduari (Zigarreta elektronikotarako likidoen eta tabakoarekin lotutako beste produktu batzuen gaineko zerga. Autolikidazioa) eta A24 ereduari (Zigarreta elektronikotarako likidoen eta tabakoarekin lotutako beste produktu batzuen gaineko zerga. Europar Batasunaren barruko bidalketengatik itzultzeko eskaera eta arautzea nola inskribatu behar diren lurralde erregistroan zigarreta elektronikotarako likidoen eta tabakoarekin lotutako beste produktu batzuen gaineko zerga ordaindu behar dutenak

Abenduaren 20ko 7/2024 Legeak zerga osagarri bat ezartzen du talde multinazionalentzako eta tamaina handiko talde nazionalentzako gutxieneko zergapetze maila globala bermatzeko, zerga bat finantza entitate jakin batzuen interesen eta komisioen marjinaren gainekoa eta zerga bat zigarreta elektronikotarako likidoen eta tabakoarekin lotutako beste produktu batzuen gainekoa, eta beste zerga arau batzuk aldatzen ditu. Gainera, azken xedapenetako bigarrenaren bidez, fabrikazio zerga berezi berri bat sortzen da, Espainiako lurralde osoan aplikatzekoa, Kanarietako Autonomia Erkidegoan eta Ceuta eta Melilla hirietan izan ezik, eta zigarreta elektronikotarako likidoen, nikotina poltsen eta botikatzat hartzen ez diren nikotinazko beste produktu batzuen kontsumoaren gainekoa, tabako laboreen gaineko zergaren eremu objektiboan sartzen ez direnak.

Zerga berri horrek 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak; hala ere, abenduaren 23ko 9/2024 Errege Lege Dekretuak, ekonomiaren, zergen, garraioaren eta Gizarte Segurantzaren arloetan presako neurriak hartzen dituenak eta gizarte egoera zaurgarrirei aurre egiteko neurri jakin batzuk luzatzen dituenak, 2025eko apirilaren 1era arte atzeratu du bere eraginkortasuna.

Zerga Bereziei buruzko 38/1992 Legearen I. tituluko IX. kapituluan arautzen da (Zigarreta elektronikotarako likidoen eta tabakoarekin zerikusia duten beste produktu batzuen gaineko zerga izenekoa), eta 64. artikulutik 64 decies artikulura bitartekoak hartzen ditu, baita bederatzigarren, hamargarren eta hamaikagarren xedapen iragankorrak ere. Zerga Berezien Erregelamenduan, I. tituluko IX. kapitulu berrian (Zigarreta elektronikotarako eta tabakoarekin lotutako beste produktu batzuetarako likidoen gaineko zerga) arautzen da, 130. artikulutik 134.bis artikulura.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onesten duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen 33. artikulua ezartzen duenez, zerga bereziak tributu itunduak dira, eta Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen funtsezko eta formazko arau berberak erabiliko dira horiek arautzeko. Arabako Foru Aldundiak ordainaraziko ditu zerga horiek, sortzapena Araban gertatzen denean. Arabako Foru Aldundiak aitortzen eta sarrera ereduak onetsi ahal izango ditu, baina eredu horietan lurralde erkideko ereduak datu berberak jasoko dira, gutxienez; eta likidazio aldi bakoitzerako sarrera epeak ezarri ahal izango ditu, baina epe horiek ez dira Estatu Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak izango.

Zerga berri hau indarrean sartzeak beharrezkoa egiten du Foru Agindu hau onestea, zergaren autolikidazio eredu bat arautuz, Arabako Foru Ogasunari aurkezteko, ordainarazteko eskumena duenean. Haren artikuluetan, aurkezteko modua, baldintza orokorrak eta prozedura ezarriko dira, eta zerga ordaindu behar dutenak lurralde erregistroan inskribatzea arautuko da.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. 573 eta A24 ereduak onestea

Bat. Onestea 573 ereduak "Zigarreta elektronikoetarako likidoen eta tabakoarekin lotutako beste produktu batzuen gaineko zerga. Autolikidazioa," foru agindu honen I. eranskinean dagoena.

Bi. Onestea A24 ereduak "Zigarreta elektronikoetarako likidoen eta tabakoarekin lotutako beste produktu batzuen gaineko zerga. Europar Batasunaren barruko bidalketengatik itzultzeko eskaera," foru agindu honen II. eranskinean dagoena.

2. artikulua. 573 ereduaren zergapekoak eta aurkezteko epeak

Bat. 573 ereduak aurkeztu beharko dute Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 35.3 artikuluko pertsona fisiko edo juridikoek eta entitateek, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen 64 quinquies artikuluan zergaduntzat definitzen direnek.

Bi. Likidazio aldia hilabete natural batekoa izango da, eta 573 ereduak aurkezteko eta, hala badagokio, zerga zorra ordaintzeko epea sortzapena gertatu den hilabetea amaitu eta hurrengo hogeita bost egun naturaletan izango da, urtarrian egin beharreko aurkezpena izan ezik, hil horren 31ra arte luzatuko baita.

Hiru. Zergaren zergadunek ez dute autolikidazioa aurkeztu beharrik izango ordaindu beharreko kuotarik ez dagoen likidazio aldietan.

3. artikulua. A24 ereduaren subjektuak eta aurkezteko epeak

Bat. Zerga honen xede diren produktuak barneko lurralde eremutik Europar Batasuneko beste estatu bateko lurraldera bidaltzen dituztenek eskubidea izango dute lurralde horretan ordaindutako kuoten itzulketa jasotzeko. Itzulketa hori eskatu ahal izateko, A24 ereduak aurkeztu beharko da.

Bi. Itzulketa eskaerarekin batera, oinarri dituen egitateak egiaztatzen dituzten egiaztagiria aurkeztu beharko dira, bai eta zergaren ordainketa egiaztatzen dutenak ere.

Hiru. A24 ereduak aurkeztuko da itzultzeko eskaera eragin duten gertakariak gertatu diren hilabetea amaitu eta hurrengo hogeita bost egun naturalen barruan, urtarrian aurkeztu behar dena izan ezik, hil horren 31ra arte luzatuko baita.

4. artikulua. 573 eta A24 ereduak aurkezteko modua, baldintza orokorrak eta prozedura

Bat. 573 ereduak nahitaez bide telematikoz aurkeztu beharko da, Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 6ko 32/2020 Foru Dekretuan (Arabako Foru Ogasunean aitorpenak eta autolikidazioak bide telematikoz aurkezteko baldintza eta betekizun orokorrak arautzen dituena) eta azaroaren 20ko 603/2020 Foru Aginduan (pertsona eta erakunde jakin batzuentzat zerga ereduak eta eskubideak Internet bidez aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura ezartzen dituena) xedatutakoarekin bat etorritik.

Ordaintzeko moduari dagokionez, helbideratuta edo ordainketa gutuna lortuta ordaindu ahal da.

Bi. 573 autolikidazio ereduak aurkezteko eta, hala badagokio, zerga zorra ordaintzeko betebeharrak Arabako Foru Aldundiaren aurrean bete beharko da, zergadun bakoitzeko aitorpen batekin. Aitorpen horretan, zergapekoek beren jardura garatzen duten Arabako lurraldean kokatutako establezimendu bakoitzari buruzko guztia jasoko da. Subjektu pasibo batek zenbait establezimendu badauzka, zerga kudeatzen duen bulegoak baimena eman ahal izango du autolikidazio zentralizatu bakarra aurkezteko eta ordaintzeko.

Hiru. Zerga Bereziei buruzko 38/1992 Legearen 64 quinquies artikuluan aipatutako zergadunen kasuan, 573 eredua aurkezteko eta, hala badagokio, zerga zorra ordaintzeko betebeharra Arabako Foru Aldundian bete beharko da, zerga egoitza Araban duenean.

Lau. A24 eredua Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Elektronikoko Komunaren bidez aurkeztu beharko da.

5. artikulua. Zigarreta elektronikoetarako likidoen eta tabakoarekin lotutako beste produktu batzuen gaineko zergaren lurralde erregistroan inskribatzea

Bat. Establezimendua edo zerga egoitza Arabako lurraldean duten zergadunek zigarreta elektronikoetarako likidoen eta tabakoarekin lotutako beste produktu batzuen gaineko zergaren lurralde erregistroan inskribatzeko eskatu beharko diote Arabako Foru Aldundiari.

Bi. Oro har, zergaren barneko lurralde eremuan ezarritako zergadunek alta emanda egon beharko dute garatu beharreko jarduerari dagokion Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren epigrafean, eta eskaera bat aurkeztuko dute, honako hauek jasoko dituen:

a) Eskatzailearen eta, behar denean, beraren ordezkariaren izen-abizenak edo sozietate izena, zerga egoitza eta identifikazio fiskaleko zenbakia. Eskaera ordezkariak aurkezten badu, ordezkariaren frogagiria aurkeztu behar du.

b) Egin nahi den jarduera deskribatzen duen memoria laburra, eskatzen den inskripzioari dagokionez.

Lurralde erregistroan inskribatzeko eskaera jarduerari ekin baino lehen aurkeztu beharko da Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Elektronikoko Komunaren bidez.

Hiru. Eskaera jaso eta espedientea izapidetu ondoren bulego kudeatzaileak zergaren lurralde erregistroan inskribatzea erabakiko du, bidezkoa bada.

Inskripzioaren erabakia interesdunari jakinaraziko zaio, eta horrekin batera inskripzioa egiaztatzen duen txartela bidaliko zaio. Txartelean Jarduera eta Establezimenduaren Kodea (JEK) agertuko da.

Inskripzio eskaera ukatzen bada, erabaki hori, behar bezala arrazoitua, eskatzaileari jakinaraziko zaio, jar daitezkeen errekurtsoak edo erreklamazioak adierazita.

Arabako Foru Aldundiari jakinarazi beharko zaio inskripzioarako aurkeztutako hasierako aitorpenean edo dokumentazioan jasotako datuetan gerora egindako edozein aldaketa.

Lau. Zerga honen lurralde erregistroan inskribatzeko betebeharra duten zergadunei eta operadore ekonomikoei esleitzen zaion Jarduera eta Establezimenduaren Kodea (JEK) konfiguratzeko, zigarreta elektronikoetarako eta tabakoarekin lotutako beste produktu batzuetarako likidoen gaineko zergaren jarduera gakoak aplikatu beharko dira, azaroaren 20ko EHA/3482/2007 Aginduaren XLII eranskinean agertzen direnak.

Bost. Zergadun horien inskripzioa baliogabetu ahal izango da legean eta zerga berezien erregelamenduan ezarritako arauak, mugak eta baldintzak ez betetzeagatik.

Xedapen gehigarri bakarra. Zigarreta elektronikoetarako likidoen eta tabakoarekin lotutako beste produktu batzuen gaineko zergaren autolikidazioa egiteko beharra dutenak eta epeak.

Bat. 2025eko apirilaren 1ean helburu komertzialekin biltegitratutako produktuak edukitzeak, betiere etendura araubideari lotuta ez badaude, produktu horien zerga egoera erregularizatu beharra dakar, zergaren sortzapena gertatzen baita.

Bi. Erregularizazio hori 573 ereduaren autolikidazioaren bidez egingo da, 2025eko apirilari dagokiona, eta 2025eko uztailaren 1etik 28ra bitartean aurkeztu beharko da, eta, hala badagokio, ordaindu.

Lehenengo xedapen iragankorra. Zigarreta elektronikoetarako likidoen eta tabakoarekin lotutako beste produktu batzuen gaineko zergaren autolikidazioa aurkezteko epea 2025eko apirilean, maiatzean eta ekainean.

2025eko apirileko, maiatzeko eta ekaineko likidazio aldiei dagozkien autolikidazioak 2025eko uztailaren 1etik 28ra bitartean aurkeztu beharko dira.

Bigarren xedapen iragankorra. Zerga berezien lurralde erregistroan inskribatzeko epea.

Fabrikatzaile, gordailu fiskal edo zergadun diren operadore ekonomikoek, baldin eta eragiketarik egiten ari badira fabrikazioaren gaineko zerga berezi honen xedeko produktuak fabrikatzen, merkaturatzen edo banatzen, eta foru agindu honetan aurreikusitakoa aplikatu behar zaion operadore ekonomikoek Arabako Foru Aldundiaren lurralde erregistroan izaera horrekin inskribatzeko eskatu beharko dute.

Azken xedapenetako lehenengoa. Fabrikazioaren gaineko zerga bereziek zergapetzen dituzten produktuen kontabilitatea eraman beharra betetzea arautzen duen urtarilaren 27ko 30/20 Foru Agindua aldatzea.

Bat. 4.2 artikulua aldatzen da eta i) letra gehitzen zaio. Honela geratzen da idatzita:

“i) Irteera mugimenduak, baldin eta aireportuetan dauden eta txikizkako establezimendu gisa soilik funtzionatzen duten zigarreta elektronikoetarako likidoen, nikotina poltsen eta nikotinazko beste produktu batzuen gordailu fiskal gisa baimendutako establezimenduek egindako salmenten ondoriozkoak badira. Produktu bakoitzeko eguneko idazpen bakar batean eman ahal izango dira.”

Bi. Aldatu egiten da “Arabako Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoaren bidez eman beharreko kontabilitateko idazpenen edukia” eranskinaren 9.3 informazio eremua, eta honela idatzita geratzen da:

“9.3. NK kodea.

Datu hori nahitaez adierazi behar da.

Kontabilitateko mugimenduak jasotzen duen produktuari dagokion NK kodea adieraziko da, uztailaren 23ko 2658/1987 (EEE) Erregelamenduak, arantzel eta estatistiken nomenklaturari eta aduanetako arantzel bateratuari buruzkoak, ezarritakoa, eranskinaren indarreko idazketaren arabera.

Alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zergaren eremu objektiboan sartutako produktuen kasuan, NK kodea 8 digiturekin adieraziko da.

Ardoaren eta edari hartzituen gaineko eta tarteko produktuen gaineko zergen eremu objektiboan sartutako produktuen kasuan, NK kodea adieraziko da, hurrenez hurren, 1/1999 Presa Fiskaleko Dekretu Arauemailearen 27. eta 31. artikuluetan jasotako digitu kopuruarekin.

Garagardoaren gaineko eta tabako laboreen gaineko zergaren eremu objektiboan sartutako produktuetan NK kodea 4 digiturekin adieraziko da.

Zigarreta elektronikoetarako eta tabakoarekin lotutako beste produktu batzuetarako likidoen gaineko zergaren eremu objektiboan sartutako produktuen kasuan, NK kodea 8 digiturekin adieraziko da.

Fabrikazioaren gaineko zerga berezien eremu objektiboan sartuta ez dauden produktuen kasuan, NK kodea gutxienez 4 digiturekin adieraziko da.

Alkoholaren eta edari alkoholduen gaineko zerga berezien eremuan diharduten establezimenduetan, kontabilitateko idazpenean jasotako produktuek epigrafe eta epigrafe kode bera dutenean, baina NK kode desberdinak eta produktu erreferentzia bakarra, foru agindu honen eranskineko 9.8 apartatua zehaztuta, egoera hori adieraziko da «BATZUK» kodea betez.”

Hiru. Hirugarren xedapen iragankorra gehitzen da.

“Hirugarren xedapen iragankorra. 2025eko apirileko, maiatzeko eta ekaineko kontabilitate idazpenak emateko betebeharra, zigarreta elektronikoetarako likidoen eta tabakoarekin lotutako beste produktu batzuen gaineko zergaren establezimenduentzat.

Zigarreta elektronikoetarako likidoen eta tabakoarekin lotutako beste produktu batzuen gaineko zergaren kontabilitatea Arabako Foru Aldundiaren zerbitzu elektronikoen bidez eraman behar duten establezimenduek 2025eko apirila, maiatza eta ekaineko likidazio aldiei dagozkien kontabilitate idazpenak 2025eko apirilaren, maiatzaren eta ekainaren 30era arte egin ahal izango dituzte.”

Azken xedapenetako bigarrena. Indarrean jartzea.

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2025eko apirileko autolikidazioei aplikatuko zaie lehen aldiz.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko ekainaren 2a

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasunaren zuzendaria
MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus	Zigarreta elektronikoetarako likidoen eta tabakoarekin lotutako beste produktu batzuen gaineko zerga Impuesto sobre los líquidos para cigarrillos electrónicos y otros productos relacionados con el tabaco	573
	AUTOLIKIDAZIOA ■ AUTOLIQUIDACIÓN	

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila

Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos

Likidazio mota ■ Tipo de liquidación		
JEKa duen establezimendua ■ Establecimiento con CAE	1	
JEK gabeko establezimendua ■ Establecimiento sin CAE	2	
Indarrean sartzean biltegitratutako produktuen erregularizazioa ■ Regularización productos almacenados a la entrada en vigor	3	

1. Aitortzailea ■ Declarante			
IFZ NIF	Deiturak eta izena, edo sozietatearen izena Apellidos y nombre o razón social		
Bulego kudeatzailearen kodea ■ Código oficina gestora		JEK kodea ■ Código CAE	
11		10	
Helbide elektronikoa ■ Correo electrónico			
21			
Harremanetarako pertsona ■ Persona de contacto		Telefonoa ■ Teléfono	
20		22	
23	Likidazio zentralizatua ■ Liquidación centralizada		

2. Ekitaldia eta zergaldia ■ Ejercicio y período	
Ekitaldia Ejercicio	
Zergaldia Período	
Jardurarik gabe ■ Sin actividad	24
Ordezkoa ■ Sustitutiva	901
Autolik. zk. / N° Autoliqu.	902
Epez kanpo eta errekerimendu bidez aurkeztua Presentada fuera de plazo por requerimiento	930

3. Likidazioa ■ Liquidación									
Epigrafea Epígrafe	Zerga oinarria Base Imponible	Zerga tasa Tipo Impositivo	Kuota osoa Cuota íntegra		Kenkaria Deducción		Kuota likidua Cuota líquida		
30	31	32	33		34		35		
40	41	42	43		44		45		
50	51	52	53		54		55		
60	61	62	63		64		65		
Kuota likidua, guztira ■ Total cuota líquida								90	

4. Emaiza ■ Resultado	
Itzuli edo ordaindu beharrekoaren emaitza ■ Resultado a devolver o a ingresar	91
Aurretik sartutako kuotak (autolikidazio ordezkoa egitekotan) Cuotas ingresadas anteriormente (en caso de autoliquidación sustitutiva)	92
Errekargua ■ Recargo	93
Berandutze korrituak ■ Intereses de demora	94
Itzultzekoa ■ Devolver	96
Zerga zorra, guztira ■ Total deuda tributaria	95

5. Kuota zentralizatuen likidazioa eta banakapena ■ Liquidación y desglose de cuotas centralizadas							
Zk. N.º	JEK CAE	Epigrafea Epígrafe	Zerga oinarria Base Imponible	Zerga tasa Tipo Impositivo	Kuota osoa Cuota íntegra	Kenkaria Deducción	Sartu edo itzuli beharreko kuota osoa Cuota íntegra a ingresar o devolver
100	101	102	103	104	105	106	107

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus	Zigarreta elektronikoetarako likidoen eta tabakoarekin lotutako beste produktu batzuen gaineko zerga Impuesto sobre los líquidos para cigarrillos electrónicos y otros productos relacionados con el tabaco	573
	JARRAIBIDEAK ■ INSTRUCCIONES	

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila

Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos

IDENTIFIKAZIOA

IFZ eremua zergapekoaren zerga identifikazioko zenbakiarekin bete behar da.

JEK atalean, autolikidazioan aipatzen den jardueraren eta establezimenduaren kodea jasoko da, hala badagokio.

Autolikidazio zentralizatua bada, ordena zenbakiaren bidez identifikatu beharko dira aitortpenean aipatzen diren JEK guztiak, baina "Kuota zentralizatuen likidazioa eta banakapena" atalean sartuko da.

EKITALDIA ETA ZERGALDIA

Ekitaldia: aitortpenean adierazitako zergaldiari dagokion urtearen lau zifrak jarri behar dira.

Zergaldia:

01 = urtarrila	02 = otsaila	03 = martxoa	04 = apirila
05 = maiatza	06 = ekaina	07 = uztaila	08 = abuztua
09 = iraila	10 = urria	11 = azaroa	12 = abendua

KUOTEN LIKIDAZIOA ETA BANAKAPENA

Datu horiek taula honen arabera aurkeztuko dira:

1. taula. Likidazio taula

Epigrafea (1)	Zerga oinarria (2)	Zerga tasak (3)	Kuota osoa (4)	Kenkariak (5)	Kuota likidoak (6)
1	mililitroak.				
2	mililitroak.				
3	gramoak.				
4	gramoak.				
Kuota likidoa, guztira (7)					

Bete ahal izateko, honako hau da lauki bakoitzaren edukia:

Epigrafea (1): epigrafeak Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen 64 artikuluan aipatzen dira, lau epigrafitan bereizita.

- 1. epigrafea: zigarreta elektronikoetarako likidoa, baldin eta nikotinarik ez badu edo 15 nikotina miligramo edo gutxiago baditu produktuaren mililitro bakoitzeko.
- 2. epigrafea: zigarreta elektronikoetarako likidoa, baldin eta 15 nikotina miligramo baino gehiago baditu produktuaren mililitro bakoitzeko.
- 3. epigrafea: nikotina poltsak.
- 4. epigrafea: nikotina duten beste produktu batzuk.

Zerga oinarria (2): Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen 64 sexies artikuluan xedatutakoaren arabera likidatzekoak diren zerga oinarrien guztirako zenbatekoa. Lauki honetan, epigrafe bakoitzaren produktua aitortu beharko da zerga oinarriaren laukian agertzen den neurri unitateetan.

Zerga oinarria honako hauek osatuko dute: zigarreta elektro-nikoetarako likidoen bolumena, mililitrotan adierazita, eta produktuaren guztirako pisua, gramotan adierazita, nikotina poltsentzat eta nikotina duten gainerako produktuentzat.

IDENTIFICACIÓN

El campo NIF debe cumplimentarse con el número de identificación fiscal del obligado tributario.

En el apartado CAE se hará constar, en su caso, el código de actividad y establecimiento al que se refiere la autoliquidación.

Si se trata de una autoliquidación centralizada, habrá que identificar por número de orden todos los CAE a los que se refiere la declaración, pero se incluirá en el apartado «Liquidación y desglose de cuotas centralizadas».

EJERCICIO Y PERÍODO

Ejercicio: deberán consignarse las cuatro cifras del año al que corresponde el período por el que se efectúa la declaración.

Período:

01 = enero	02 = febrero	03 = marzo	04 = abril
05 = mayo	06 = junio	07 = julio	08 = agosto
09 = septiembre	10 = octubre	11 = noviembre	12 = diciembre

LIQUIDACIÓN Y DESGLOSE DE CUOTAS

Estos datos se presentarán con arreglo al siguiente cuadro:

Tabla 1. Cuadro de liquidación:

Epigrafe (1)	Base imponible (2)	Tipos impositivos (3)	Cuota íntegra (4)	Deducciones (5)	Cuotas líquidas (6)
1	mililitros.				
2	mililitros.				
3	gramos.				
4	gramos.				
Cuota líquida total (7)					

A efectos de su cumplimentación, el contenido de cada casilla es el siguiente:

Epígrafe (1): los epígrafes aparecen referenciados en el artículo 64 septies de la Ley 38/1992, de 28 de diciembre, de Impuestos Especiales diferenciados en cuatro epígrafes.

- Epígrafe 1: Líquido para cigarrillos electrónicos que no contenga nicotina o que contenga 15 miligramos de nicotina o menos, por mililitro de producto.
- Epígrafe 2: Líquido para cigarrillos electrónicos que contenga más de 15 miligramos de nicotina por mililitro de producto.
- Epígrafe 3: Bolsas de nicotina.
- Epígrafe 4: Otros productos de nicotina.

Base Imponible (2): Importe total de las bases imponibles que sean objeto de liquidación conforme a lo dispuesto en el artículo 64 sexies de la Ley 38/1992, de 28 de diciembre, de Impuestos Especiales. En esa casilla habrá que declarar el producto de cada epígrafe en las unidades de medidas que aparece en la casilla Base imponible.

La base imponible estará constituida por el volumen, expresado en mililitros, para los líquidos para cigarrillos electrónicos y por el peso total del producto, expresado en gramos, para las bolsas de nicotina y para los otros productos de nicotina.

Kuota osoak (4): epigrafe bakoitzaren zerga oinarriari zerga tasa aplikatuta lortzen den zenbatekoa; horrela, epigrafearen araberrako kuotak lortzen dira.

Kuota likidoak (6) kuota osoen eta kenkarien arteko aldetik ateratzen den zenbatekoa.

Kuota likidoa, guztira (7): sartu beharreko edo, hala badagokio, itzuli beharreko zenbatekoa, zeina epigrafe bakoitzeko kuota likidoen baturaren emaitza baita.

(4), (5), (6) eta (7) eremuetan adierazitako zenbatekoak eurotan adierazi beharko dira, bi hamartarrekin, gorantz biribilduta, hurrengo zenbakira, hirugarren hamartarraren zifra bost edo hori baino zifra handiagoa bada. Gainerako kasuetan, beherantz biribilduko da.

Datu horiek taula honen arabera aurkeztuko dira:

2. taula. Likidazio taula

ZK.	JEK	Epigrafea	Zerga oinarria	Zerga tasak	Kuota osoak	Kenkariak	Kuota likidoak
Kuota likidoa, guztira (7).							

Bete ahal izateko, honako hau da lauki bakoitzaren edukia:

Establezimendu bakoitzaren arabera (JEK) banakatu beharko dira aitortu beharreko zergaren epigrafe guztiak.

Epigrafeak: epigrafeak Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen 64. artikuluan aipatzen dira, lau epigrafitan bereizita.

- 1. epigrafea: zigarreta elektronikoetarako likidoa, baldin eta nikotinarik ez badu edo 15 nikotina miligramo edo gutxiago baditu produktuaren mililitro bakoitzeko.
- 2. epigrafea: zigarreta elektronikoetarako likidoa, baldin eta 15 nikotina miligramo baino gehiago baditu produktuaren mililitro bakoitzeko.
- 3. epigrafea: nikotina poltsak.
- 4. epigrafea: nikotina duten beste produktu batzuk.

Zerga oinarria: Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen 64. artikuluan xedatutakoaren arabera likidatzeak diren zerga oinarrien gutzitako zenbatekoa. Lauki honetan epigrafe eta establezimendu bakoitzaren produktua aitortu beharko da zerga oinarriaren laukian agertzen den neurri unitateetan.

Zerga oinarria honako hauek osatuko dute: zigarreta elektro-
nikoetarako likidoen bolumena, mililitrotan adierazita, eta

Si dicho volumen o peso está expresado en un número decimal se redondeará por exceso, al número siguiente, cuando la cifra del tercer decimal sea igual o superior a cinco. Se redondeará por defecto en los demás casos. Estas cantidades se expresarán con dos decimales.

Tipos impositivos (3): se aplicará el tipo impositivo que corresponda a cada epígrafe, conforme a lo dispuesto en el artículo 64 septies de la Ley 38/1992, de 28 de diciembre, de Impuestos Especiales.

Cuotas integras (4): Importe que resulta de aplicar sobre la base imponible de cada epígrafe el tipo impositivo, obteniendo así las cuotas por epígrafe.

Deducciones (5): supuestos donde conforme la normativa vigente se admite la deducción en cuota (artículo 133 apartado 3 Reglamento de los Impuestos Especiales).

Cuotas líquidas (6): Importe que resulta de la diferencia entre las cuotas íntegras y las deducciones.

Cuota líquida total (7): importe a ingresar o, en su caso, a devolver que resulta de la suma de las cuotas líquidas de cada epígrafe.

Los importes indicados en los campos (4), (5), (6) y (7) deberán expresarse en euros con dos decimales, redondeado por exceso, al número siguiente, cuando la cifra del tercer decimal sea igual o superior a cinco. Se redondeará por defecto en los demás casos.

Estos datos se presentarán con arreglo al siguiente cuadro:

Tabla 2. Cuadro de liquidación

Nº	CAE	Epígrafe	Base imponible	Tipos impositivos	Cuotas íntegras	Deducciones	Cuotas líquidas
Cuota líquida total (7).							

A efectos de su cumplimentación, el contenido de cada casilla es el siguiente:

Se deberá desglosar por cada Establecimiento (CAE) todos y cada uno de los epígrafes del impuesto a declarar.

Epígrafe: los epígrafes aparecen referenciados en el artículo 64 septies de la Ley 38/1992, de 28 de diciembre, de Impuestos Especiales diferenciados en cuatro epígrafes.

- Epígrafe 1: Líquido para cigarrillos electrónicos que no contenga nicotina o que contenga 15 miligramos de nicotina o menos, por mililitro de producto.
- Epígrafe 2: Líquido para cigarrillos electrónicos que contenga más de 15 miligramos de nicotina por mililitro de producto.
- Epígrafe 3: Bolsas de nicotina.
- Epígrafe 4: Otros productos de nicotina.

Base Imponible: Importe total de las bases imponibles que sean objeto de liquidación conforme a lo dispuesto en el artículo 64 sexies de la Ley 38/1992, de 28 de diciembre, de Impuestos Especiales. En esa casilla habrá que declarar el producto de cada epígrafe y establecimiento en las unidades de medidas que aparece en la casilla Base imponible.

La base imponible estará constituida por el volumen, expresado en mililitros, para los líquidos para cigarrillos electrónicos y

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava	Zigarreta elektronikoetarako likidoen eta tabakoarekin lotutako beste produktu batzuen gaineko zerga Impuesto sobre los líquidos para cigarrillos electrónicos y otros productos relacionados con el tabaco JARRAIBIDEAK ■ INSTRUCCIONES	573 Orria ■ Página 3
---	--	--------------------------------

produktuaren guztirako pisua, gramotan adierazita, nikotina poltsentzat eta nikotina duten gainerako produktuentzat.

Baldin eta bolumen edo pisu hori zenbaki hamartar batean adierazita badago, gorantz biribilduko da, hurrengo zenbakira, hirugarren hamartarraren zifra bost edo hori baino zifra handiagoa bada. Gainerako kasuetan, beherantz biribilduko da. Kopuru horiek bi hamartarrekin adieraziko dira.

Zerga tasak: epigrafe eta establezimendu bakoitzari dagokion zerga tasa aplikatuko da, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen 64. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Kuota osoak: epigrafe eta establezimendu bakoitzaren zerga oinarriari zerga tasa aplikatuta lortzen den zenbatekoa; horrela, epigrafearen eta establezimenduaren araberako kuotak lortzen dira.

Kenkariak: kasuak, zeinetan kuotan epigrafe eta establezimendu bakoitzaren arabera kenkaria aplikatzea onartzen baita indarrean dagoen araudiaren arabera (esaterako: Zerga Berezien Arautegiaren 133. artikulua, 3. apartatua).

Kuota likidua epigrafe eta establezimenduaren arabera: kuota osoaren eta kenkarien arteko aldetik ateratzen den zenbatekoa.

Kuota likidua, guztira: epigrafe eta establezimendu bakoitzeko kuota likido guztien batura.

Zenbatekoak eurotan adierazi beharko dira, bi hamartarrekin, gorantz biribilduta, hurrengo zenbakira, hirugarren hamartarraren zifra bost edo hori baino zifra handiagoa bada. Gainerako kasuetan, beherantz biribilduko da.

por el peso total del producto, expresado en gramos, para las bolsas de nicotina y para los otros productos de nicotina.

Si dicho volumen o peso está expresado en un número decimal se redondeará por exceso, al número siguiente, cuando la cifra del tercer decimal sea igual o superior a cinco. Se redondeará por defecto en los demás casos. Estas cantidades se expresarán con dos decimales.

Tipos impositivos: se aplicará el tipo impositivo que corresponda a cada epígrafe y establecimiento, conforme a lo dispuesto en el artículo 64 septies de la Ley 38/1992, de 28 de diciembre, de Impuestos Especiales.

Cuotas íntegras: Importe que resulta de aplicar sobre la base imponible de cada epígrafe y establecimiento, el tipo impositivo, obteniendo así las cuotas por epígrafe y establecimiento.

Deducciones: supuestos donde conforme la normativa vigente se admite la deducción en cuota por cada epígrafe y establecimiento (por ejemplo: artículo 133 apartado 3 Reglamento de los Impuestos Especiales).

Cuota líquida por epígrafe y establecimiento: Importe que resulta de la diferencia entre la cuota íntegra y las deducciones.

Cuota líquida total: Importe que resulta de sumar todas las cuotas líquidas por cada epígrafe y establecimiento.

Los importes deberán expresarse en euros con dos decimales, redondeados por exceso, al número siguiente, cuando la cifra del tercer decimal sea igual o superior a cinco. Se redondeará por defecto en los demás casos.

Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos

2. Itzulketa eskaera ■ Solicitud de devolución

3. Helbideraketa ■ Domiciliación

REF. 25/178

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus	Zigarreta elektronikoetarako likidoen eta tabakoarekin lotutako beste produktu batzuen gaineko zerga Europar Batasunaren barruko bidalketengatik itzultzeko eskaera Impuesto sobre los líquidos para cigarrillos electrónicos y otros productos relacionados con el tabaco Solicitud de devolución por envíos dentro de la Unión Europea JARRAIBIDEAK ■ INSTRUCCIONES	A24
--	---	-------------------

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila

Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos

Partida zenbakia (1): bidalitako produktuen ordena.**Helmugako estatu kidea (EB) (2):** Europar Batasuneko zer estatu kideri bidaltzen zaizkion produktuak epigrafe mota bakoitzeko.**Epigrafea (3):** epigrafeak Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen 64 artikuluan aipatzen dira, lau epigrafetan bereizita.

- 1. epigrafea: zigarreta elektronikoetarako likidoa, baldin eta nikotinarik ez badu edo 15 nikotina miligramo edo gutxiago baditu produktuaren mililitro bakoitzeko.
- 2. epigrafea: zigarreta elektronikoetarako likidoa, baldin eta 15 nikotina miligramo baino gehiago baditu produktuaren mililitro bakoitzeko.
- 3. epigrafea: nikotina poltsak.
- 4. epigrafea: nikotina duten beste produktu batzuk.

Produktuaren kopurua (4): Abenduaren 28ko 38/1992 Legearen 64 nonies artikuluan c) apartatuan xedatutakoaren arabera, barneko lurralde eremutik Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetara bidaltzen diren produktuen zenbateko osoa. Lauki horretan, epigrafe bakoitzeko produktuaren kopurua airtortu beharko da, honako neurri unitate hauetan:**Bolumena:** zigarreta elektronikoetarako likidoena, mililitrotan adierazita, eta produktuaren guztirako pisua, gramotan adierazita, nikotina poltsentzat eta nikotina duten gainerako produktuentzat.**Baldin eta bolumen edo pisu hori zenbaki hamartar batean adierazita badago, gorantz biribilduko da, hurrengo zenbakira, hirugarren hamartarraren zifra bost edo hori baino zifra handiagoa bada. Gainerako kasuetan, beherantz biribilduko da. Kopuru horiek bi hamartarrekin adieraziko dira.****Itzuli beharreko kuota (5):** Epigrafe bakoitzari dagokion itzuli beharreko zenbatekoa.**Zenbatekoa** eurotan adierazi beharko da, bi hamartarrekin, gorantz biribilduta, hurrengo zenbakira, hirugarren hamartarraren zifra bost edo hori baino zifra handiagoa bada. Gainerako kasuetan, beherantz biribilduko da.**Número de partida (1):** la ordenación de los diferentes productos enviados.**Estado miembro (UE) destino (2):** se deberá indicar el Estado miembro de la Unión Europea hacia el que se envía los productos por cada tipo de epígrafe.**Epígrafe (3):** los epígrafes aparecen referenciados en el artículo 64 septies de la Ley 38/1992, de 28 de diciembre, de Impuestos Especiales diferenciados en cuatro epígrafes.

- Epígrafe 1: Líquido para cigarrillos electrónicos que no contenga nicotina o que contenga 15 miligramos de nicotina o menos, por mililitro de producto.
- Epígrafe 2: Líquido para cigarrillos electrónicos que contenga más de 15 miligramos de nicotina por mililitro de producto.
- Epígrafe 3: Bolsas de nicotina.
- Epígrafe 4: Otros productos de nicotina.

Cantidades de producto (4): Importe total de productos que sean objeto de envío desde el ámbito territorial interno con destino a otros Estados miembros de la Unión Europea, conforme a lo dispuesto en el artículo 64 nonies, apartado c), de la Ley 38/1992, de 28 de diciembre. En esa casilla habrá que declarar la cantidad de producto de cada epígrafe en las siguientes unidades de medidas:**Volumen,** expresado en mililitros, para los líquidos para cigarrillos electrónicos y por el peso total del producto, expresado en gramos, para las bolsas de nicotina y para los otros productos de nicotina.**Si dicho volumen o peso está expresado en un número decimal se redondeará por exceso, al número siguiente, cuando la cifra del tercer decimal sea igual o superior a cinco. Se redondeará por defecto en los demás casos. Estas cantidades se expresarán con dos decimales.****Cuota a devolver (5):** Importe que resulta a devolver correspondiente a cada epígrafe.**El importe debe expresarse en euros con dos decimales redondeado por exceso, al número siguiente, cuando la cifra del tercer decimal sea igual o superior a cinco. Se redondeará por defecto en los demás casos.**